

Iglu erako kanpadenda

Kutxak dakartzan gauzak:


- Kanpoko oihala
- Zuntzeko makilatxoak
- Barruko oihala
- Burdinazko iltzeak



- Aurkitu leku lehor, garbi eta babestua kanpadenda muntatzeko. Kendu lurreko harritxoak eta makilatxoak erosoago lo egin dezazun. Adi ibili eta aldendu inurritegi eta bestelako intsektuen bizilekuetatik.



- Zabal ezazu barruko oihala eta kokatu lurrean. Kanpandenda lurrari tinko eusteko erabil itzazu burdinazko iltzeak.



- Muntatu itzazu zuntzeko makilatxoak eta egokitu barruko oihalaren gainean.



- Lotu makilatxoak eta barruko oihala. Gero, altxatu dena makilatxoaren muturrak ertzetako ataletan sartuz.



- Zabaldu kanpoko oihala eta jar ezazu kanpadendaren egituraren gainetik. Lurrari eusteko ertzetako sokatxoak eta burdinazko iltzeak erabili.

Aukeratu erantzun zuzena.

1

Zer testu mota da irakurri duzuna?

- A. Iragarkia.
- B. Komikia.
- C. Argibide-orria.
- D. Errezeta.

2

Zer atal ditu argibide-orriak?

- A. Argibideak, besterik ez.
- B. Irudiak, besterik ez.
- C. Argibideak eta irudiak.
- D. Argibideak, irudiak eta objektuaren osagaiak.

3

Zein lekutan ez da komeni kanpadenda muntatzea?

- A. Garbiegi dauden lekuetan.
- B. Leku babestu etalehorretan.
- C. Beste kanpadenda baten ondoan.
- D. Inurritegi edota bestelako intsektuen bizilekuetatik gertu.

4

Zer behar da kanpadenda lurrari ondo eusteko?

- A. Harri handiak.
- B. Burdinazko iltzeak.
- C. Dendakide pisutsuak.
- D. Gurasoen laguntza.

5

Nola daude azalduta argibideak?

- A. Pauso guztiak, baina era nahasian.
- B. Bukaeratik hasieraraino.
- C. Hasieratik bukaeraraino.
- D. Prozesuaren erditik aurrera.